

Krisiaren eragina Arrasateko enpreetan

ARRASATE ^{PRESS}

1992ko urriak 9

165. zenb.

Elkarrizketa

**Tamara
Molodzova**


Asteko
agenda osoa

Joxe Bixente Etxabe

Oraindik bada artzairik

AMAGARA

estetika zentrua



"Centre Phycomedical"ak kreditaturiko zentru espezializatua

AMAGARA
estetika zentrua

Erdiko kale, 54 etxabea.
ARRASATE Tfnoa: 79 09 09



Gure **1.** urteurrena ospatzean, gugan jarri duzun konfidantza eskertzeko, **BI OPARI EDER** jasoko dituzu urrian zehar:

1. Diagnosi biomorfologikoa.
2. Hidromasaiaiko sesioa.

**Ez itxoin gehiago,
dei egiguzu!!!**

HITZALDIA

Zer irtenbide du Gaztetxeak?

Zer asmo du Udalak, eta Gaztetxeko jendeak?

Moderatzailea:

Leire Diaz de Gereñu


Eguna: **urriak 15, OSTEguna**

Ordua: **7etan**

Tokia: **Monterron**



Hizlariak:



Iker Barandiaran
(Gaztetxeko ordezkaria)



Isabel Gallastegi
(Udaleko Gazte Batzordeko Burua)

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Estimulazio goiztiarra

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotrizitatea eta
hizkun berreziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

LORATEGI taberna


Iturriotz, 7
Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

Memesa

79 42 22

ARRASATE PRESS HARPIDETZAK

 77 05 65



Aldizkari honek
Eusko Jauriaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du

Gaztetxegintzaz

Oñati, Donostia, Azkoitia... lehenengoetako gaztetxeak. Aguro zabaldu zen gaztetxegintzaren zaletasun bitxi hura eta Arrasatera ere heldu zen, noski. Egungoak lehenengo hark baino arrakasta handiagoa lortu du herri mailan, gazteek —eta ez horren gazteek— ezagutzen dute paraje hura. Ez dago dudarik jende mordoxka biltzen dela han. Pozgarria da, baina galdetzekoa da baita, noiz, zertan, nola?....

Erantzun guztiek harreman handia duten berbetara eramaten gaituzte. Bai, tabernaz ari naiz, gaztetxeak antolatutako ekimen arrakastatsuenaz (edo akaso - rock, noski - kontzertuak?). Eta tira, ez naiz ni tabernen aurkakoa —ezta parranden aurkakoa ere, noski— baina kezkarria iruditzen zait gaztetxe baten ekimenik arrakastatsuen taberna izatea. Egungo gizarteen baloreen aurkakoa? Alternatiboa? Gazte Ekimena? Ze gizartearen baloreen aurkakoa? (ez dit balio guztiontzat zabalik dagoela esateak, arrakasta parte hartzearen arabera neurtzen da eta)... Teoriaren kolore politak. Aitortu beharra dago, dena den, samurra ez dela.

Baina "filosofadak" alde bate-

ra utzita, irakurri dudanez, komunak eta zarata ei dira arazo nagusienak. Ez lirateke arazo izan beharko gaztetxeek zarata eta higie mailan —gainerako herritarrek moduan— arauak beteiko balituzte, eta Udaletik horiek horrela izan ez daitezkeen neurriak hartuko balira. Borondate kontua da. Baina bien aldekoa. B-i-e-n-a.

Berriro "filosofia" bueltatuta, arazoa gazte-riarena da orokorrean. "Porreruek" ei ziren sasoi bateko pasotak. Gaur egun, oster, pasotak nonahi daude eta gainera "normalak" eta "jatorrak" dira. Bai Gaztetxean, bai zona "gorria"n (beste zona asko galdutzat jotzen ditut ia)... Militantzia, konpromezua... Vade retro!!! Izan ere, XXI. mendeko atarian jada, ze gixajori bururatzen zaizkio horrelakoak? Ze letxe, gaztetxeek behintzat ahaleginak egiten dituzte.

XABIER LETONA
"ATAXI"




HARITZ LARRINAGA

• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa) Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Arantzazu Loidi. **Kazetariak:** Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon. **Publizitatea:** Kepa Oliden (77 06 90). **Administrazioa:** Agurtzane Gaintzarain (Tfnoa: 77 08 15) **Maketaria:** Goio Arana. **Erredakzio-kontseilua:** Jon Mujika, Karmele Zuazubiskar, Jabier Ozaeta, Maribel Aranburu, Patxi Montero, Iñaki Mendiguren. **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Blanca Jauregi, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Udalako Ingurugiro Eskola, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Jon Iñaki Lasa, Xabier Letona, Iñintza, Mikel Olabe, Mari Tere Alonso, Liherr Larrea, Antton del Campo, Sorginak, Kofi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martinez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozaeta. © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimetgia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

 ARRASATE PRESS
paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkia: Beñardo



ZENBAKI
Aholkularitza

**Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak**

Basabe industrialdea
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 88 75

Biteri Etorb. 15
ARRASATE
Tfnoa: 77 12 39



ITURRIOTZ

**taberna
Girorik
jatorrena!**

Tfnoa: 79 16 04



Alkoholarekin arazoak daukazazu?

**Agian,
"Alkoholiko
Anonimoek" lagundu
ahal dizute!!**

**Alkoholiko
Anonimoak**

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

••••
**Gu PSOEren
aliatuak ote?**

92-9-5eko Egunkarian
92-9-18ko ARRASATE
PRESSEN, Jon Sarasuak izen-
petutako zutabetxo bat
agertzen zen eta bertan
izoztuta utzi gaituen zenbait
iritzi, sindikatu eta eskolei
buruz.

Bakoitza libre da sin-
dikatuari eta eskolari buruz
bere iritzia plazaratzeko,
baina informazio sakon bat
eduki ondoren, eta Jonek
idatzitakoa irakurri ondoren
gaur egun irakaskuntza bar-
nean gertatzen diren gora-
beherei buruz ez dagoela oso
informatuta pentsatzen
dugu. Hasteko, nork uler-
tzen du publikotasuna esta-
tuarena bezala, zuk? Guk ez,
eta badirudi ez garela baka-
rrak; hor duzu Sortzen al-
ternatiba Euskal Eskola Pu-
bliko eta Bakarraren alde
gauden Ikastoletako eta
Herri Eskoletako guraso eta
irakasle goaren alternatiba.
Hau kasualitatez sortua izan
al da? Ez al da izango zuk
planteatzen duzun apustu
ideologiko hori ez dela hain
zoragarria eta ez duela jen-
dea asetzen?

Koorratibismoa ere
aipatzen duzu. Zuretzat zer
da korporatibismoa? Lanki-
deen interesak defendatzea,
pedagogia aurrerakoia es-
koletan sartu eta zabaltzea?
16 urte lanean jardunik Eus-
kara eskoletan sartzan, sen-
dotzen eta A eta B ereduak
alde batera utzi ondoren,
murgiltze planak ezartzen,

hau da, Euskara hutsean er-
daldun umeak euskaldun-
tzen. Eta are gehiago, Eus-
kararen aurka zeunden as-
kok, egin dugun lana eta
presioengatik, hemendik
joan edo Euskara ikasi behar
izan du. Hau al da zuretzat
korporatibismoa edo gure
soldatak bakarrik defendat-
zea? Hau dena Eusko Jaur-
laritzaren indiferentziak eta
Euskal Kulturaren kontura
bapo bizi den hainbat jen-
deren laguntzarik gabe egin
dugu. Korporatibistak ez
ezik, konfluentziarik nahi ez
duen edozein errekalzitran-
tek orain arte bota digun sa-
laketa botatzen duzu: Esta-
tuaren aliatu onenak gara.
Jon, jarri al zara pentsatzen
behin ere, guk erdaldunak
euskaldundu ez bagenu, zer
bronka egongo litzakeen he-
men? Imajinatu al duzu nola
aprobetxatuko zukeen
PSOEek horrelako egoera
bat?

Bukatzeko, ez dugu me-
dailarik nahi baina, egin du-
gun lana egin ondoren,
errespeto minimo bat eska-
tzen dugu.

Bueno Jon, problema
ideologikorik gabe eta Eus-
kara defendatzeko nahi du-
zun arte.

**Xabier Arruti eta
Arrate Landa, Stee-
Eilas-eko kideak eta
Herri
Eskoletako irakasleak**

ZUZENKETA

**Azken orduko ara-
zoak direla eta,
orrialdeen numera-
zioa ez da zuzena
zenbaki honetan.**

**Edozein keja, ko-
mentario, burutazio
duzula? Idatziguzu
gutuna eta gusto
handiz argitaratuko
dugu. Ez idatzi 20
lerrotik gora eta
eman zure izena,
N.A. eta telefona
harremanetarako.**




Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**

77 05 65

V. mendeurrenaren ospakizunak zer zentzu du zuretzat?



Esteban Otadui
Roneoko langilea
(35 urte)

Egia esanda, azpergarria da. Zergatik ospatu behar dugu egun hori kolonitzaile bezala? Liburu askotan esaten da ez zela horrela izan. Hori txorrada bat da.



Monika Lizaraburu
Diseinu ikaslea
(21 urte)

Ez naiz asko enteratzen. Niretzat gauza inportanteagoak daude hori baino. Ez du zentzu handirik.



Pello Urreta
Langabetua
(21 urte)

Niretzat ez du ez zentzurik ez ezer. Niretzat urte normala da, zentzurik gabekoa.




Esmeralda Gomez
Etxekoandrea
(48 urte)

Historia zentzu bat badu behintzat. Baina hangoek suguruenik ez dute horrela ikusiko, gure kultura zabaldu nahi izan genuen baina inbasio bezala hartu zuten azken finean.



Ana Maeztu
Psikologia ikaslea
(21 urte)

Galdera hori eurei egingo nieke. Niretzat ez du zentzu handirik. Hortan gastatuko duten dirua beste gauza batzutan erabil daiteke, premia handiagoko gazetan.



Juan Migel Aranburu
Administraria
(37 urte)

Niretzat ez du zentzu handirik. Liburuek diotenez, inbasioa izan zen. Guk modu baten ikusten dugu eta eurek beste baten, baina ospatzeak berez ez du zentzu handirik.



Lierni Lasa
Ikastolako irakaslea
(25 urte)

Ez litzateke ospatu behar. Sentitzen dudana ez da nazka baina lotsagarria iruditzen zait, inoren lotsa sentitzen dut.



Mikel Arzuaga
Institutuko kontsergea
(31 urte)

Egun horrek ez du zentzurik niretzat. Nire amaren eguna delako bakarrik, baina ez aurkikuntzaren mendeurrena delako.

LAURA

GAZTE MODA

Erdiko kale, 30
ARRASATE
Tfnoa: 79 57 20

Berango



**Sukalde-
altzariak,
mahaiak eta
aulkiak.**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g. Gipuzkoa Etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit. 79 53 00
 Igoalatorioa 79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 79 39 00
 (emakumeak) 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua 79 90 11

Gurutze gorria
 Bergara 76 55 76

DYA
 Antzuola 76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak) 79 13 57
 (Txanda hartzeko) 77 03 46
 77 07 21
 Oñati 78 08 52
 Eskoriatza 79 98 58
 Aretxabaleta 79 74 58
 Aramaio (945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulantiak 45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati 78 04 11
 Bergara 76 14 69
 Arrasate 79 14 39
 Aretxabaleta 79 10 52
 Eskoriatza 79 03 22

Ertzaintza
 Arrasate 79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile
 burua 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 78 28 00

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua) 79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero) 79 05 81
 Gasa 900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraloak
 Taxiak 79 12 22
 P.E.S.A. 79 14 19

Hirugarren adinekoentzako zentruak
 Iturbide Egoitza 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 79 81 57

Kontsumitzailearentzako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta
 Erabiltzaileen Elkarteak 79 87 77
 KIUB-OMIC 79 51 55

Monterrongo liburutegia
 Monterron 77 01 05

GOARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 9
 Egunez: Arhezua, Santa Marina.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

Larunbata 10
 Egunez: Aurora Ruiz, Maala.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Igandea 11
 Egunez: A.M. Morales, San Andres.
 Gaeuz: Camacho, Oxirondo.

Astelehena 12
 Egunez: Alberto Azkoaga, Ferrerías.
 Gaeuz: Puy, Barrenkale.

Astearte 13
 Egunez: S. Español, Iturrioz.
 Gaeuz: Guallar, San Antonio.

Asteazkena 14
 Egunez: M. Corcuera, Musakola.
 Gaeuz: Estella, Matxiategui.

Osteguna 15
 Egunez: J. A. Irizar, Erguin.
 Gaeuz: Mozos, Pedro Deunaren.

9 OSTIRALA

ZINEA
 • "Sonambulos" (7, 9.30).

POP ROCK
 • Pop Rock. "Hor Konpon" taldea. Elorriko Kafe Ateneon, gaueko 11etan.

SARI BANAKETA
 • "Belaunaldi Gaztea" lehiaketako sari banaketa. Monterronen arratsaldeko 7etan.

ARGAZKIA
 • "Belaunaldi Gaztea" III. Argazki lehiaketaren erakusketa. Monterronen.

PINTURA
 • Jose Ramon Elorzaren Margo erakusketa. Bergarako Kultur Etxean. 14a bitartean.
 • Mikel Arroiabe aratxabaltarren kuadroen erakusketa. Bergarako Naikari tabernan.

ABESBATZAK
 • Goikobaluren kontzertua. Eskoriatzako San Pedro elizan. Arratsaldeko 8.30etan.

10 LARUNBATA

ZINEA
 • "Sonambulos" (7, 9.30).

IKASTAROA
 • Elkar-entzuketara ikastaroa. Aramaion. Irakasleak: Eneko Landaburu eta Esther Riego. 10.000 PTA. Igandean bukatuko da.
 • Masaia ikastaroa eta elkar bizitza. Elgoibarko Ubixa Barne-tegian. 12a arte.

ELEXPAREN BIDEA
 • Mountain bike-eko ibilbidea. Irteera Bizkaiko Zaldibarko herritik, goizeko 9etan. Igandean bukatuko da.

ERAKUSKETA
 • Angel Galipienzoren omenez, pintura erakusketa. Harresi aretoan. Azaroaren 8a arte.

KINTOEN JAI
 • 1942ko kintoen eguna. 12.30etan meza San Franziskon. Bazkaria Musakolako Hostalean.

11 IGANDEA

ZINEA
 • "Sonambulos" (5, 7, 9.30).
 • "Fievel se va al oeste". Goizeko 12etan. Alai zinean. 300 PTA.

NAFARROA OINEZ
 • Bianan Nafarroa Oinez. Autobusak goizeko 11etan Zaldibartik. 750 PTA.

MENDIA
 • Lizarrusti-Igaratza-Hirumugarrieta-Baraibar ibilbidea. Beasaidek antolatua.

FAMILI ETA GIZARTE HEZIKETARAKO ZENTRUAK IKASTAROAK HASI

Santamainako Famili eta Gizarte Heziketako Zentruak hasi ditu aurtengo

antolatu dituen ikastaroak. Ikastaro guztiak arratsaldean izango dira: 3.30etatik 6.30etara artisautez tailerra, patroigintza industrial eta jostintza, puntua eta gakorratza, sukaldaritza eta gozogintza, hezkuntza personala, eta psikologia. 6.30etatik 9etara sukaldaritza, artisautez tailerra, filosofia, marrazkia eta pintura, gitarra eta patroigintza industrial. Pasa den asteartean hasi ziren ikastaroak; hala ere, interesatuok, zentzura bertara zuzendu edo telefono honetara deitu: 79 04 59.

ELKAR-ENTZUKETA IKASTAROA

Bihar larunbata hasiko da Aramaion elkar-entzuketara ikastaroa, eta hiru egunetan emango dena. Eneko Landaburu eta Esther Riego izango dira irakasleak. Prezioa 10.000 pezaketara izango da, ostalua eta janaria barne.



12 ASTELEHENA**ZINEA**

- "Arenas Blancas" (7, 9.30).
- "Fievel va al oeste". Goizeko 12etan. Alai zinean. 300 PTA.

JAIA

- Udalaiz Eguna.
- Hispanitate Eguna.
- Pilarika Eguna.

13 ASTEARTEA**ZINEA**

- "Arenas Blancas" (7, 9.30).

HITZALDIA

- "V. Mendeurrena, atzo lapurreta, gaur?". Hizlaria: Julio Araluze. Elorrioko Arriola kultur aretoan. 15 eta 20etan.

IKASTAROA

- Argazkigintza ikastaroaren hasiera. 7etatik 9ak arte. 1.000 PTAko matrikula. Plaza mugatuak. Azaroko 12an bukatuko da.

BILERA

- IVEF txartela lortu nahi dutentzat bilera. Arratsaldeko 7etan. Musakolako Kiroldegian. Informazio gehiago Arrasate Igeri Taldean.

14 ASTEAZKENA**HITZALDIA**

- "Peru, Estatu golpeko 500 urte". Hizlaria: Marcelo Alvarez. Elorrioko Arriola kultur aretoan. 15 eta 20etan.

15 OSTEGUNA**HITZALDIA**

- Zer irtenbide du Gaztetxeak? Zer asmo du Udalak, eta Gaztetxeako jendeak?. Hizlariak: Iker Barandiaran (Gaztetxeak) eta Isabel Gallastegi (Udaleko Gazteria Batzordeko Burua). Arratsaldeko 7etan Monterronen. AEDK antolatuta.

UDALAITZ EGUNA

Datorren astelehenean Udalaiz eguna ospatuko da. Goizeko 11 eta meza izango da gailurrean, mendian hildako guztiei eskeinita, Eskoriatzako Alex Belategi eta Mikel Urrutiari bereziki. Ondoren, eta urtero bezala, hurbiltzen diren mendizaleek, bertso saioa ere entzun ahal izango dute. Udala auzotik goizeko 9etan izango da irteera eta eguraldiak laguntzen ez badu, San Esteban elizan izango da meza.

**3. ADINEKOENTZAT NEGUKO EGONALDIAK**

Gipuzkoako herriren baten erroldatuak dauden jubilatuek eta bere kabuz moldatzeko gai direnek, parte hartu ahal izango dute Torreveja ondoan dagoen Guardamar Del Seguran izango diren egonaldietan. Lehengo txanda urriaren 13tik abenduaren 14rako izango da, bigarrena urtarrilaren 11tik martxoaren 31ra eta hirugarrena apirilaren 19tik ekainaren 30era. Izena emateko Diputazioa deitu beharko da: 900-43 43 43.

GAZTETXEA EZTABAIDAGAI MONTERRONEN

Datorren ostegunean arratsaldeko 7etan Gaztetxeari buruzko hitzaldia izango da. "Zer irtenbide du Gaztetxeak?" eta "Zer asmo du Udalak, eta gaztetxeako jendeak?" gaiak aurkezten da hitzaldia. Moderatzailea Leire Diaz de Gereñu izango da eta hizlariak, berriz, Iker Barandiaran Gaztetxeako ordezkaria eta Isabel Gallastegi, Gazteria Batzordeko Burua. AEDK antolatzen duen hitzaldi hau Monterronen izango da.



“Herri honen osaketa eta gorpuztean euskaraz ari diren komunikabideen betebeharra eztabaidatzen ezin ditugu beste hamar urte eman. (...) Aginte-erakunde autonomikoetan izan diren aldaketak zuzeneko proiektioa izan dute beti Iurretan eta fotokopietan bezala, Gasteizen gertatzen zirenak hal erreplikatu egin dira. Zuzendaritza karguak ildo berdinekoen artean banatu dira, eta faktore ideologiko-politikoak profesionalen gain jarri izan dira beti.

(...) EITBko kazetari askoren artean, funtzionarizazio nagusi da aspaldi, arrazoi profesionalak eta ondo egin gurak baliorik ez zuela ikusita.

(...) EITB sortzearen arrazoiak bi euskara suspertu eta hiritar guztientzako informazio tresna egokia izatea, helburu horiek ETBren kanale guztietan agertarazi beharra dago. Onartezina da etxera heltzen zaizkigun kanale publiko zein pribatuetatik, bakar batean entzun ahal izatea euskara. (...) ETBren kanale bien arteko osagarritasuna tranpa bat da, programazio aldetik, konpetentzia direlako eta programatikoki, agintarien desoreka ideologikoaren adierazgarri nabarmena. EITBrena proiektu politesia/interesgarriegia da politikoaren esku bakarrik uzteko”.

Edorta Arana. 92-10-1.

Egunkaria

“Arrasaten duela bost hilabete egin genuen telefonozko inkesta erraldoi baten arabera, ETB1 kanalak audientziaren %16a du gure herrian eta ATBk %14koa, bi hauen gainetik TVE1 bakarrik kokatzen delarik. Hau da, hiru astez eta ordu puntatan, arrasatearren %30ak euskara hutsezko telebista ikusten duela agertu zen. Ez da egongo beste herri bat maila horretara hurbiltzen denik. Argi dago, beraz, ATBk ez diola ETBri pastela jaten, bientzako pastela handitu baizik”.

Mikel Irizar. 92-10-3.

Egunkaria


Zergatik HIESari buruzko programa sendagile eta erizaintzat?

Programa horretan mediku eta erizanei zuzendutako hitzaldiak burutzen ari gara, toxikomanoekin, agobiatuta sentitzen direnekin eta HIES-a bera duten gaixoeekin zer motatako harremana garatu behar den eztabaidatzeko.


Sendagile eta erizainak hitzaldi edo eztabaida horiekiko oso jarrera atsegina erakusten ari dira, lau orduko hitzaldiak dira eta asistentzia oso ona izateaz gain, interesgarri bihurtzen dituzte, jakinmin handia dute eta. Normala da erizain edo sendagileek gai honen inguruan egiten denaz interesea erakustea, gehienak gaixotasun hori duen norbait tratatzen ari dira eta.

Bestalde, kontuan hartu behar da HIES-aren gaia teknikoki azaltzea nahiko zaila dela, ideiak urtetik urtera aldatzen dira eta; hortaz, programa honen helburua jendea ondo informatzeko zubiak jartzea da. Desinformazioaren ondorioz, beldurra sortzen da, istripu txikiak ere izan dira eta, baina esan beharra dago orokorrean profesionalki ez dagoela arriskurik.

Programaren helburua jendea ondo informatzea izanda, hitzaldiak Deba Garaia osoko sendagile eta erizanei luzatu dizkiegu. Guztion artean, HIES-aren arazoa plazaratzen duen bideo txiki bat ikusi, eztabaidatu eta irtenbideak ematen saiatzen gara, talde-lana azken finean. Lortu nahi dena, laburbilduz, gaixotasunari beldurrik ez izan eta teknikoki jaztea litzateke, gaixotasunaren aurrean zer egin eta nora jo.



Jose Manuel Agud
Txagorritxuko Medikua



Stylo Stauffer Munar

Arin eta lirain, erraz eta dibertitua

Gizon / Emakume

- Linearen zuzenketa
- Mantenimenduaren hobekuntza
- Pisu galketa
- Depilaketak. Kiromasaia, Reflexologia podala.
- Naturista. Iridiologia.
- Odol zirkulapenaren areagotzea.
- Artikulazioaren malgutasuna.
- Giharren indartzea.

Eskatu ordua!

Tfnoa: 77 02 49 Munar Plaza, 8 ARRASATE

Erasoa PSOEko egoitzaren aurka

Maritxu Kajoi gauean, gazte talde bat PSOEko egoitzara sartu zen; bertan zegoen kuadroren bat lapurtu eta kristalen bat apurtu zuen. Gipuzkoako PSOEk Jarrairi leporatu dio erasoaren erantzukizuna, egoitza honek jasaten duen hamabigarrena hain zuzen ere, eta Ertzantzaren pasibotasuna salatu du.

ARRASATE PRESS berriaren aurkezpena

ARRASATE PRESSEko ale berriaren aurkezpena burutu zen joan den ostiralean, Monterroneko hitzaldi-aretoan. Aurkezpena Arantzazu Loidi zuzendaria, Mikel Irizar ARKOk lehendakaria, Iñaki Mendiguren Erredakzio-Kontseilu kideak eta Jesus Larrañagak aldizkariko kolaboratzaileetarikoa batekin egin zuten. Aurkezpena bukatu eta gero, AED elkartearen luntx txiki baten inguruan bildu ziren aurkezpenaren egondakoak. Aurkezpenaren bertan, baita kalean ere, ARRASATE PRESS berria iragartzen zuten papiak banatu ziren, arrakasta handia izan zutenak gainera.

Eguraldiak Napartheiden Komiki-Jaia izorratu

Euriteak zoritxarreko protagonista izan dira asteburu osoan zehar, eta

Maritxu Kajoi jaian eraginik ez duten izan moduan, larunbateko Napartheiden Komiki-Jaia erdi-jota utzi zuen. Arratsalde parteko egitaraua, nola edo hala eta uste baino ikusle gutxiagoz bete zen, baina gaueko rock-jaialdia bertan behera utzi zen. Rock-kontzertua aurrerago egin zitekeela ere aipatu zen, baina ez da egingo. Gaueko ikuskizun horretarako sarrerak erositako zeuzkatenak AEDtik pasa daitezke eta dirua itzuliko zaie.

Larreko Etxebizitzak martxan

Larreko Babes Ofizia-

leko etxebizitzak egiteko obrak, dagoeneko hasiak dira atzerapen handi samarrez. Eraikitzen oraindik ez dira hasi, baina behintzat eskabadorak sartu dituzte. Behin obrak hasita, etxebizitzak egiteko bi urteko epea izango da. Larrean 110 Babes Ofizialeko etxebizitzak egingo dira, horietatik lau gutxitu fisikoek zuzendutakoak.

Arrasatearrak Oartzunen

Igandean Oartzunen burututako kilometroak 92-aren edizioan, 65.000 pertsona inguru izan omen ziren. Arrasatearrek ez zuten kale

egin eta AEDk antolatutako autobusetan 648 arrasatear hurbildu ziren Oartzuna; atxabaltarrak, berriz, 243 eta eskoriatzarrak 61; guztira 17 autobus hiru herrien artean. Eta igande honetan Nafarroa Oinez, Bianan, gauzak azken urteetan bezala joango balira, Arrasateetik dozena bat autobus irtengo lirerateke.

Eguraldia datutan

Asteko protagonista nagusiak, zoritxarreko protagonistak, eurria eta haize hotz eta gogorra izan ziren. Ikerlanen jasotako datuen arabera, ostiral gauek astelehene goizera arte, Arrasaten metro karratuko 124 litro jausi ziren. Urkuluko urtegia, bere gaitasunaren %85era iritsi zen.



Maritxu Kajoi, beti bezain arrakastatsua

Eguraldiak ez zuen bat ere lagundu, baina arrasatearrek Maritxu Kajoi behar bezala omendu zuten eta parranda aurreko urteetan bezain entzutetsua izan zen. Gau osoan, milaka lagun kaleetan zehar, agian bertakoak baino kanpokoak gehiago, eta goizari ongietorria erdi-balantzaka edo erdi-zutirik eman ziotenak ere, ugari. Azken finean, bete-beteko festa.

JAIOTZAK

- Amaia del Campo Urrutia. Iraitlaen 21ean.
- Nerea Hernandez Heriz. 28an.
- Asier Goitia de Gustin. Urriaren 2an.
- Asier Zubillaga Fernandez. 2an.
- Jone Iribekanos Juaristi. 4ean.

HILDAKOAK

- Cristina Gutierrez Rubio. Urriaren 1ean. 62 urte.
- Bernardo Narbaiza Azpitarte. 1ean. 83 urte.
- Pablo Lasa Izuzkiza. 2an. 65 urte.
- Agustina Gracia Gil. 2an. 76 urte.
- M^a Concepción Moreno de Lucas. 2an. 65 urte.

EZKONTZAK

- Jose Manuel Alvarez Sobrino & M^a Pilar Casquete Fernandez. Iraitlaen 30ean. Zibilez.



Zatoz gure gazte moda ezagutzera

Italora Lizentziatua, 5
Tfnoa: 77 00 81
ARRASATE

comercial san juan

hikein

MARKO-JARTZEAK

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



BIXENTE AZKARATE*

Jubilatu eta pentsionistak

Oraindik Jubilatuaren ohoretan hainbat ekintza ospatzen jarraitzen badugu ere, izen egokiagoa Pentsionisten Etxea dela pentsatzen jarri beharko dugu. Izan ere, Etxeetako bazkideak pentsioa jasotzen dutelako dira bazkide, eta Zestoan burutu-tako Jubilatu eta Pentsionisten Kongresuan onartu zen araudi berriarekin, bazkide berriak hartzeari dagokionez, jubilatzeko adinik ez duen pentsionista kopurua jubilatuena baino handiagoa dela ari gara ikusten.

Jubilatzeko garaia heltean, gurea bezalako etxe batetan bazkide izateko aukeraren jabe egitean, izenemateak egun gutxiren buruan gauzatzen dira, denoi gustatzen zaigu eta beste karnet bat izatea, kontsumisioetan, Kiroldegian, bidaietan, txangoetan, podologoarenean etb abantailak ekarriko dizkigula jakinda.

Hala ere, eta Soziedadeen fenomenuearengatik dela uste dugu, jubilatu berriak ez dira batere joaten gure etxeetara. Kuota ordaintzeko bakarrik etortzen dira eta batzuk horretara ere ez. Bazkide horiek ez daude etxearen eguneroko bizitzan sartuta eta antza denez, ez zaie interesatzen.

Jubilatu ondoren jasotzen duten pentsio altuak ere eragiten du horretan, aurreko bizitza bera egiten jarraitzen dute eta, zaharren Elkarte batekin jardutea baino nahiago dutenez.

Alderdi ekonomikoa funtsezkoa da etxearen ihar-

.....
“Jubilatu berriak soziedadetan geratzen da”

duera onerako. Sarrerak hiru dira: bazkideak, Udala eta Diputazioa.

Bazkideen urteko aportazioa 200 PTAKoa da, eta gure herrian ere bazkide batzuen aldetik arazoak daudenez, sarrera hau ez da kontutan hartzen etxeetan. Bazkideen %13ak ez du bere kouta ordaintzen eta Gipuzkoako Elkarteko kide garenez, eta bazkideko 60 PTako kuota ordaindu behar dugunez, justu justu ordaintzen da kuotatan jasotakoarekin.

Beste dirusarrera bat Udalarena da, eta oso osorik mantenimendu, argi, ur, konponketa eta antzeko gastuak ordaintzeko erabiltzen denez, inbertsiotarako ez da iristen eta.

Diputazioak, berriaz, Kultur ekintza eta denborapasakoetarako ematen du dirulaguntza. Bertan, osasun zerbitzua, podologoa, prentsa, eskulanak, ibilaldiak etab. sartzen dira.

Zuzendaritzako Junten trebezia jabetzeko, esan beharra dago laguntza horiek atzerapen handiz iristen direla, ez dakigu arduragabekeriaz ala ahaztu egiten zaielako. Urriaren bederatzian gaude eta oraindik ez dugu Diputaziotik 92ko ekitaldira zuzendutakotik bost xentimo ere jaso. Beste gauza asko geratzen da argitzeko, baina hurrengorako utziko dugu.

* TOKI ARGIKO
 PRESIDENTEA
 (Erredakzioan itzulia)

USTEAK USTE

GAZTELERA EUSKAL ZITETAN?

Kilometroak joan den igandean eta Nafarroa Oinez etzi, euskalza-leen zita. Aitortu behar dut, joan den igandean ez nintzela Oiartzunen izan; bixamona errudun, baina tira! larunbat gaua ederra joan zen eta ez dut damurik igande goizean jaikitze-ko adorerik ez izateagatik, ezta kontraesanik nire euskalzale kontzientzian ere.

Oiartzunen ez izanda ere, jakin badakit antzerako ekitaldiekin alderatuz gero, igandekoak ez zuela desberdintasun handirik izango. Hau da: milaka pertsona, guztiak bustita, zorionez batzuk euskaraz blai eta beste mordo bat gaztelera z blai.

Milaka lagun izango ziren Oiartzunen, asko euskalzale zintzoak... baina baita giro jatorrean egunpasa joan ziren beste asko ere, urte osoan euskararekiko duten axolagabekeria urtean zehar burutzen diren ekitaldiei dirua emanaz ordaintzen dutenak. Bianan, nik neuk, hobeto pasa nuke horiek gabe; gutxi baina onak.

BEÑARDO KORTABARRIA

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
 Tfnoa: 79 36 46



Umeentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 97 86

ARRASATE
 PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Geroz eta lanpostu gutxiago eta aurrejubilazio gehiago

Krisi ekonomikoaren in-guruko berriak, ugarituz doaz egunetik egunera: pesetak Europan dituen arazoak, burtsen noraezeko iharduerak eta industriari orokorrean bizi duen egoera txarra. Krisiaren errealitatea onartuta ere, badirudi oinezkook, krisiari be-raiengan eragin berezirik ez duen bitartean, ez dugu ardura gehiegi. Hala ere, krisiaren hatzaparrak luzeak dira eta bailarako enpresa askoren egoera kezkarri bihurtzen ari da. Zentzu horretan aipagarria da Bergarako Mayc edo Algodoneran kendu behar den lanpostuen kopurua, iaz Antzuolako Ariherren gertatu zen gauza bera.

Fagorren larri

Arrasaten enpresa askoren etorkizuna nahiko iluna da eta krisia gogor ari da kooperatiba taldea jotzen. Fagorren, lanpostuak gutxitu egin behar izan dituzte, 50 lanpostu bulego orokorretan, 36 Fagor Automation-en eta baita urtean zehar Copreci eta Fagor Electronican ere. Horretaz gain, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Electrodomésticos, Fagor Ederlan eta Fagor Electrónica egutegi mugikorrek ezarri dituzte. Azkenik, Fagor



UCEMen gero eta lanpostu gutxiago.

taldeko enpresa batzutan aurre-jubilazioak ematen ari dira eta baliteke neurri hau Fagor talde osora zabaltzea.

UCEM eta Polmetasan arazoak

Kooperatibak alde batera, Arrasateko gainontzeko enpresak ere ez daude onenean: UCEM eta Polmetasa kasu aipagarrienak.

UCEM-eko Transformados Metalicos enpresan, gaur egun dauden 109 langileetarik, 70 enplegua erregulatze-ko expedientean sartuta daude. Hau da, aipatutako langile-kopurua, sei hilabetez lan-

gabezia izango da, soldataren %95a kobratuz. Expedientea, ELA eta UGTk zuzendaritzarekin lortutako akordioaren ondoren onartu zen, nahiz eta CC.OO. aurka egon. Enpresak zioenez, merkatuaren egoera txarraren ondorioz hartu behar izan zen neurria; CCOOek, berriz, zuzendaritzak, lurraren espekulazioaren bidez, enpresaren desmantelamendua besterik ez zuela nahi adierazten zuen. Zentzu honetan, badirudi etorkizunera begira beste plan bat aurkeztu duela enpresak: Arrasateko Transformados Metalicos itxi, eta hemendik

kanpo beste elkarte berri bat sortu. Elkarte berrian, 52 langileentzako lana izango litzateke bakarrik eta kontuan hartu behar da, orain ere enpresa honetan 56 urtetik beherako langilerik ez dagoela. Transformados Metalicos-en butano bonbonak eta tornilloak egiten dituzte.

Polmetasan, antzerako zerbait gertatzen ari da, baina okerrago, joan den hilean lanean ari diren 178 langileetatik 40ri kontratuaren reszisia egin zitzaion eta. Beraz, badirudi begien aurrean etorkizun beltza besterik ez dela ikusten.

Zurgin Kantoi, 2
Tfnoa: 79 20 04
ARRASATE

PAZI-OLA SA
GALDARAGINTZAKO LANTEGIA
Zaldispe kalea, 2
ARRASATE Tfnoa 79 29 94



Gazteen aisialdia antolatzea, egitasmoaren helburuetariko bat.

Udala eta AED gazteen mundua euskaldundu nahiean

Gazteen mundua euskalduntzeko helburuaz, Udaleko Euskara eta Gazteria Batzordeak AEDko gazte sailarekin batera, egitasmo bat bultzatu nahi du.

Gazteen hizkuntz gaitasuna eta euskararen erabilpenaren azterketatik abiatuta, motibapena suztatu, ezagupena handitu eta erabilpena indartzeko ekintzak burutzeko asmoa dago. Gazteria eta Euskara Batzordeen arabera, ikastetxeetan, gurasoengan eta ikasleengan, motibazio-lana egin beharko litzateke, euskarazko eredueta sar daitezten. Era berean, gazteen euskalduntze-alfabetatzea suztatu eta eta irakaskuntza ez-arautuan

gazteekin ari diren akademiekin elkarlanean iharduteko ahalegina egin beharko litzateke.

Hizkuntz jokaera gaztaroan finkatzen denez, programa iraunkorrak martxan jarri beharra ikusten da: Ikastetxeetan euskara taldeak sortzen lagundu, aisialdiko ekintzak eta ikastaroak antolatu, Athlonek gazteen-tzat ere ekintzak antolatzea eta gazteekin dabiltzan erakundeekin elkarlanean aritzea.

Asteburuan AEDko gazte-sailak antolatuta Arabako Ozaeta 50 laguneko egonaldia burutuko da. Baliteke, egonaldi horretatik Gabonak bitarteko ekintza-egitarau zehatz bat prestatuta ekartzeara.

••••• Amaia antzokiko obrak geldirik

Amaia antzokia berregokitze obrak gelditu egin dira, proiektuaren definizio berria egin arte. Dirudienez, obra egin ahala, hasierako proiektutik aldaketa dexente egin da, aurrekontuan igoera nabarmena eragin duten aldaketak. Proiektua berriro behar dezala definitu arte, obrei ez zaie berrekingo; beraz, Amaia antzokia ez da, esaten zen bezala, azaroan irekiko.

Txikienak igeritan ikasten

Arrasateko Igeri Taldeak aditzera eman duenez, txikien taldeak hasiak dituzte dagoeneko igeriketa ikastaroa. Interesatuok Kiroldegian eman dezakezue izena.

Gaztetxearen aldeko sinadura bilketa

Udala eta auzokideekin duten arazoa konpontzerakoan baliagarri izan dadin, Gaztetxeoak sinadura bilketa kanpaina burutzen ari dira. Sinatzeko orriak tabernetan aurki daitezke.



**BEROGAILU
ETA GAS
INSTALAZIOAK**

CLEGAS

Garro Jenerala, 2-1 ezk. Tfnoa: 77 00 77 ARRASATE
Romualdo Galdos, 22. P-13. Tfnoa: 11 40 64 EIBAR
Particular de Ategorrieta, 2 etxeba. Tfnoa: 27 39 20 DONOSTIA




Araba Etorb. tfnoa: 79 01 31 eta 79 65 54 ARRASATE

AHIZKE-CIMEK bere **MEDIATEKA**ren atek **zabaltzen dizkio bailara osoari**. Baliabide-gela honetan, norberak aukeratutako hizkuntza (alemana, frantsesa edo ingelesa) landu ahal izango du autonomia osoz, bakoitzak bere kasa.

- Zabalik: **egunero 5etatik 7etara asteazkenetan ezik.**
- Prezioa: **2.000 PTA urtean.**
- Hasiera: **urriaren 15ean.**

Pasa zaitetz AHIZKE-CIMetik eta eskatu **MEDIATEKA**ri buruz informazio zabalagoa.



Altamirako lokal honetan orain Arrasate Saskibaloi taldearen egoitza dago.

Arazoak Altamirako Udal lokalak banatzeko orduan

Umezaintzak Altamiran zuen lokalekin arazoak daude. Dirudienez, lokal horiek Pilota Elkarteari utzi zitzaizkion, baina Iturripen lekua aurkitu eta gero, pilotakoek erabiltzen ez zituztenez, Komite Internazionalistak, EKI, Eguzki eta Askapenari uzteko akordioa hartu zuen Udalak. Adjudikazioarena jakin barik, Arrasate Saskibaloi Taldekoek pilotakoekin hitz egin zuten eta horiek beharrik ez zutenez, bertan jarri zuten taldearen bulegoa, ezjakinean, baina beste batzueri emandakoa okupatuz.

Egoera hau dela eta, Anton Zumaldek, Kultura Batzordeburuak adierazi zuen mo-

mentuz ez zegoela beste lokalik, eta eragozpenik ez bazuten "Altamiran libre geratzen diren hiru lokaletatik bi, lau taldeen artean banatzea izango litzateke irtenbide onena. Bestalde, esan behar da saskibaloikoek orain arte ez zutela lokalik, eta bulegoa jarri duten moduan jarrita eta gainera duten beharra ikusita, pena litzateke hortik bidali behar izatea".


Udala orain, talde kaltetuekin biltzekotan da, sortu den egoeraz kezkatu agertzeaz gain, Udalak uzten dituen ondasunen gutxienezko segimendua egin beharko lukeela adierazten zuten eta.

Urrezko domina Fagorri

Ingeniaritza eta Makina Herramintak Nazioarteko Azokaren Batzorde antolatzailerak Berrikuntza Teknologikoaren Urrezko Domina eman dio Fagor Automati- ni. Azokara joan ziren 3.000 erakusleen artean, Fagorrek 8050 Zenbakizko Kontrolak jaso zuen saria, digitalizazioaren zehaztasun eta kalitatearengatik.

Desagertutako en bat agertu

Mari Trini Fernandez gazte arrasatearra pasa den asteazkenean agertu zen Zaragozan. Mari Trini Zaragozako komisaldegian batean zegoen, eta bere gurasoak bertara joanda ziren. Nahiz eta ahaleginak egin, ezin izan da jakin Eva Rico, Mari Trinirekin desagertu zen beste neska berarekin batera zegoen edo ez. Dirudienez, komisaldegian behintzat, Mari Trini Fernandez zegoen bakarrik. Gogoratu, ia hilabete pasa dela gazte biak desagertu zirenetik, Elorrioko jaietara Muxibarren auto-stopaga inginda joan eta gero.



**GOI MAILAKO
BITXIAK ETA
ERLOJUAK**

Eskaintzen dugun produktuen kalitatea da gure diztira. Akabera bikaineko bitxiak, diseinurik moderno eta dotoreenaz eginak.

NAROKI

Erdiko kale, 23
Tfnoa: 79 20 47 ARRASATE



- Ikusentzunezko mekanografia. 200 eta 300 pultsazio minutuko.
- Irakaskuntza garantizatua.
- Ordenagailu bidezko mekanografia.
- Master V. D. takigrafia.

Otalora, 3 1.C ARRASATE Tfnoa: 79 68 53

Zarraoa

ESTETIKA ZENTRUA
Lurrundegia, opariak, jostailuak

Kanpantorpea, 4 Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE




Maritxu

Kajoi gauean sekulako beroa egiten zuen tabernetan. Hala ere ARRASATE PRESSEKO pai paia eskuan izan genuenok, zorte ona izan genuen, noiz behinka haize boladatxoa ematen bait zigun. Maritxu Kajoiaren beste mirariari eskainitakoa:

ARRASATE PRESS berriari eskainitako pai-paia.

Aurtengo Maritxu Kajoi gaua zoragarria izan zen benetan, jende dotorez jantzitako gaua. Majiaz betetako gau honetan inor ez zen etxean geratu, kalean ikusten zen jendetzak hala demostratu zuen behintzat. Giro ezin hobea izan zen, oso polita. Zer gehiago kontatuko dizuegu, denok ere hor izan zineten eta...

Antton Santamaria, Unidad Alavesako partaidea ere Arrasaten izan genuen. Maritxuko trajea jantzi eta Batzokian izan genuen afaltzen. Arantzazuko Barnetegian euskara ikasten egondakoen afaria izan zen eta bera ere horien artean zegoen.



Maritxu Kajoi egunean roaz gozaten eta Maritxu Kajoiaren eskapularioaz harrapatu genuen argazkia egiteko.



Lidia Ojalde eta Luis Garcia uztailaren 12an ezkondu ziren. Zorionak eta urte askotarako!

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
 **77 05 65**

ARTEA
 Eskulanak eta lientzoak
 ENMARKAZIOAK
 Laminak, Izpiluak,
 Margoak
 Ferrerías, 11 Tfnoa: 77 10 95
 ARRASATE

ERRASTI KRISTALDEGIA
**Plastiko eta burdinazko hodiak
 beirina eta kristalak
 akzesorioak**
 Olarte kalea, 47 behe Tfnoak: 79 22 55 79 14 25



Datorren astelehenean Udalaitez Eguna ospatuko da. Honako argazkia iazko jai horretan egina da. Bertan Joxe Luis Agirretxe, San Frantziskoko frailea, Jon Ugalde,

Bittor Balzategi, Eugenio Balzategi eta Gerardo Jauregi ikusten ditugu. Ea aurten ere animatzen zareten eta astelehenean tontorrean elkar ikusten dugun!

Larunbatean Napatheid taldeak, Komiki Jaia ospatu zuen, baina, antolatutako ekintza guztiak ez ziren aurrera eraman, eguraldi txarra zela eta, gaueko kontzertua bertan behera geratu baitzen. Monterronen Pas-



toraltxoan izan zen (argazkian) eta euriaegin arren jendeak eutsi zion

guardasolpean. Udaletxeko arripetan, berriz, marrazkilariak:

Martin, Olariaga eta beste hainbat.

IZEN PROPIOAK

● **Angel Garcia**k, 17 urte, Gandian ospatu zen halterofilia frogetan, Espainiako txapelduna izatea lortu zuen. 92.5 kilo jaso zituen golpe batez eta 110 kilo bi denboretan. Orain bi urte infantiletako txapeldun ere izan zen. Arrasaten halterofilia egiten duen bakarra da eta promesa izateko aukera handiak ditu.

● **Asun Agiriano**, 28 urte, Monterrongo umeen liburutegiko arduradun berria dugu. Zorroagako fakultatean, Filosofia ikasi ondoren, Famili eta Gizarte Heziketarako Zentruan filosofia klaseak eman zituen. Katalogazio eta liburuzain ikastaro batzuk ere baditu eginak.

● **Fernando Sanchez Mujika, Miren Arantzazu Aranzabal** eta **Gracia Romerok**, Gatzagan Zeramika tailerra irekitzeko baimena eskuratu dute. Orain lantegia egokitzeko obrak hasi dituzte eta badirudi hemendik pare bat hilabetetara ireki ahal izango dutela. Urgarri izena jarri diote enpresari.

**Monte
taberna**

Maalako errabala, 11
Tfnoa: 79 20 56

BAZAR
TOKI ON


.....
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
.....

J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE



**SAMEGO
GARBIKETAK**

Urriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39



DINARRIZKO IOGA IKASTAROA

EMALEA: JOSE LUIS ARMENDIA
EGUNAK: URRIAREN 6tik HASITA
ABENDURA BITARTERAN
ORDUA: ARRATSADEKO 3.30etatik
TOKIA: AED ELKARTEN
ANTOLATZAILEREA: EKIN
EMAKUME
TALDEA



SUKALDARITZA IKASTAROA

EMALEA: ALBERTO ELORZA
"Zelai-ZABALEKO" SUKALDARIA.
EGUNAK: URRIAREN 7tik, 27ra.
ORDUA: ARRATSADEKO 3.30etan.
TOKIA: AED ELKARTEN
ANTOLATZAILEREA: EKIN
EMAKUME
TALDEA.

MATE

● *Tamara Molodzova*

Errusiar Euskalerriratua

Tamarak urte asko darama Arrasaten, eta bere jaioterria, Errusia, urteroko bisitaleku bihurtu du. Han ez zaito oroitzapena besterik geratzen.

— Senarra hemengoa izanik, nola ezagutu zenuen?

— Beno, Moskun ezagutu nuen. Gerra hasi zenean ume asko eramán zituzten barkuetan, Frantzia, Belgika, Ingalaterra eta Errusiara. Nire senarra horrela joandakoa da. Elektrizista lan egiten zuen fabrian eta han ezagutu genuen elkar. Han ezkondu ginen eta alaba ere han jaio zen, hona etorri aurretik eta 1956an etorri ginen. Bilboko Gurutze Gorrian egin genuen denboraldi bat eta gero, Durangon bizi izaten zortzi urte egin ondoren etorri ginen Arrasatera.

— Zelakoa izan zen hona etortzea?

— Oso gaizki pasa genuen. Gogorra izan zen, larritasun handiak pasa genituen; nik berriz ere Errusiara itzuli nahi nuen, baina senarrak esaten zidan "Itxoin apur bat, Tamara, altxako dugu burua". Orduan aguantatu genuen eta orain gustora nago.

— Hizkuntzarekin zer?

— Han errusieraz hitzegi-

ten nuen senarrarekin eta gaztelaririk ez nekien tutik ere, eta euskaraz gutxiago. Hemen orduan Franco zegoen eta denek gaztelaraz egin behar zuten. "Zenbat balio du?" galdetzen ikasi nuen, gero hatzamarrarekin erakutsiz moldatzen nintzen. Orain 38 urte daramatzat hemen, Errusian baino denbora gehiago, eta neure bizitza hemen antolatu dut, eta lagun asko dudanez, ondo moldatzen naiz. Ni etorri nintzen garaian inork ere ez zuen euskaraz egiten, eta halabeharrez ikasi behar izan nuen gaztelera, bestela euskara ikasiko nuen.

Hasieran gaztelaraz ere hitz bat bestearekin nahasten nuen; behin harategira joan nintzen buztana erostera eta "rabo" esan beharrean "robo" eskatu nuen.

— Eta zela ikusi duzu zure herria hemendik, urte guzti hauetan?

— Etorri ginenean, hemen Franco zegoela eta herri faxista zenez, kartarik ez idazteko esaten zidaten familiakoek, eta horregatik ez nuen ezer jakin Franco hil arte. Ezkondu ginenean bidaiarik ere egin ez genuenez, ezkontzako zilar-eztaiak betetzean hara joatea pentsatu genuen. Ordutik urtero joan izan naiz, azken bi urteotan



ezik; hango lehengusuek idazten didatenez, egoera oso txarra da han eta oraindik ez joateko esaten didate. Errepublikan aldarrikapena eta guzti hori ere ez dut batere ondo ikusten, baina Errusia handia eta indartsua da eta ez du horren ardurarik.

— Zela bizi izan duzu hango aldaketa guztia?

— Joan nintzen lehen urteetan ez nuen hainbeste diferentzia somatzen, baina Perestroikaren ondoren oso txarto dago hura. Hasieran sinpatia handiagoa nion Jeltsini Gorbaxov-i baino, baina horrek ere Gonzalezena egiten du, asko agindu eta bete ez, ulertzen? Gorbaxov-ek hobea dirudi, gauzak poliki egiten ditu, baina ez du besteak bezala promesarik egiten. Eta jendea ere ez dago orain Jeltsinekin. Lehengu-

suak idazten dit eta bere esanetan aberatsak eta pobreak daude orain Errusian, estraperlo asko. Benetan gaizki bizi direnak pentsionistak dira, ogia eta esnea bakarrik jaten dutela esaten du.

Gero, iaz Errusiako injenieri batzuk izan ziren hemen lanean, eta ondo ikusten ziren, autoa ere eramán zuten hemen erosita, eta baita autoarentzako piezak ere, han ez dago eta. Limoiak ere bai, zakukada; han limoi batek 100 PTA balio ditu, eta egin daitekeen oparirik onena da.

— Hemengo ohiturak?

— Orain ohituta nago, baina hasieran zerutik erorita bezala nengoen. Orain hara noanean, han sentitzen naiz arrotz. Hor ere badut anekdota: Durangon kintoek bazkaria egiten zuten herrian zehar dirua batuta, soldadutzara joan aurretik. Etorri zitzaizkidan etxera niri ere, eta zer zen jakin ez eta esan nien: "nik ez dut Francoren militarrentzako dirurik emango".

● **"Orain Errusian hirugarren adinekoek bizi dute egoerarik latzena"**

Joxe Bixente Etxabe: Muxibarko artzaia

Beñardo Kortabarria

Garai batean, negua helzteaz bat eta ez oso aspaldi, ohizko gauza zen artzaia, txakur eta artaldearekin menditik beheko zelaietara jaisten ikustea. Gaur, ordea, ohitura zahar horrek izugarritzko ikusmina sortzen du. Artzantzatik bizi direnak gero eta gutxiago izanda, ez da arraroa. Arrasaten, bakarra Joxe Bixente Etxabe.

ESKOLATIK DEGURIXARA

Hirurogeitamar urte ditu Joxe Bixentek, 58 artzai lanean. Muxibar baserrian jaioten, gaur egun bizi den toki berean, eta eskola bukatu zuenetik artzaiaren bizitza bakartira ohitu behar izan zuten. "Degurixara 50 ardi eta bi txarriekin etorri nitzuan, hamabi urteaz. Lehenengo urtea txarra izan zuan, ardiak topau ezinda, gaztagintzan hasi eta hatzamarrekin estuketarakoan mamiak goitik irten, logureak akabatzen, goizean goiz jaiki behar... hasiera negargarria izan zuan. Hurrengo urterako bertako barri jakin, gauzak egiten ikasi... eta tira! bastante politto; gero bigarren urtetik hirugarrenera diferentzia handia, eta laugarren urterako, hemen neu jaun eta jabe, kanpeon kasik".

Gerra zibila ere mendian eta artzantzian igaro zuen Joxe Bixentek, hamalau urte besterik ez zituen baina oso ondo gogoratzen du pasadizo bereziz jositako garai hura.



Degurixako paisaia bakarti bezain zoragarrian, gaur egun hiru artzai besterik ez dabilta.

"Mondragoetar danak etorri zittuan hona, fabrikantiok, Cerrajera eta Elmako nagusi danak hemen egon zittuan; herritik ihes eginda nik egindako talua jan eta esnea edanaz, kobazuluetan gordeta".

Gerra denborako jende, toki, izen, militar gradu, fetxa, gorri eta frankisten gorabeherak, mortero eta kainoiaren dinbi-danbak edo eta bala txistuak... ondo baino hobeto gogoratzen ditu Joxe Bixentek, atzo gertatu izan balira bezala. Gerra denborako makina bat istorio kontatzen ditu artzai honek, baina gerra egunak baino pake-garaiak ezagutu dituzte bai berak eta baita Degurixako zuhaitz eta belardiek ere. Mendietako pakea hautsi zuten urte haiek pasa eta gero,

Lehenengo urtea txarra izan zuan... baina laugarren urterako, hemen neu jaun eta jabe, kanpeon kasik"

Muxibarko artzaiak bizitza normalari ekin zion.

MITOAK APURTUZ

"Orduan, artzaiaren bizitza gaurkoa baino nekosoagoa zuan, baina baita konformeagoa ere. Aste bateko janaria bizkarrean hartu eta etxetik oinez etortzen gintuan eta udaberrian, gaztaia zegoenean, astoan, gero jeneroa eraman ahal izateko. Degurixan bertan, ezagutu ditut 8-10 artzai gaztagintzan, gaur, berriz, artzantzatik bizi garenak 3 besterik ez gaituk.

Bizimodua, lehenengoaren ondoan eroso duk: automobilean etortzen gaituk, txaboletan hozgailua eta ekonomika dauzkagu, urdaiazpikoa, kafea, ardoa eta nahi adina janari ekarri geinkek. Lehen

talao, salda, babak..., ke artean negarrez gaztaia eginez...urte asko horrela pasatutakoak gaittuk. Lana bera ez dok gehiegi aldatu, gure martxa izaten dok, goizean goiz ardiak jaitsi, larratu, ura berotu, maiatza eta ekainean gaztaia egin... eguerdira arte; txarria edukiz gero, hura gobernatu, bazkaldu, siesta apur bat eta momentuko ardiak bilatu eta eskortara ekarri behar, egurra ekarri... lana gura adina egoten dok. Jende askok pentsetan jok artzaiak nagiak direla, baina hori ez dok egia”.

Egun osoa zuhaitzen itzalean txirula joz denbora igarotzen duen artzaiaren irudia, erabat zapuztu dute Joxe Bixenteren hitzek. Izan ere, berak ez du sekula, soinua jo edo bertsoak kantatzeko afiziorik izan; bai, ordea, erromerietan dantza egitekoa.

‘ARGI’, MENDIKO LAGUNIK ONENA

Degurixako txabolan irratia eta txakurra ei ditu lagun onenak, “espezialak” bere hitzetan. *Argi* izeneko txakurra du orain, bistara, ardi-txakur korrientea dirudiena. “Txakur asko izan jittuat, batzuk onak eta beste batzuk txarrak, langile ikaragarriak eta baita nagiak ere, pertsonak letxe; espeziala jaukat oraingoa, fina akabera bakoa, langilea, gogorra, kariñosoa... kategoria handiko txakurra, edozeinen inbidia bakoa”. Joxe Bixentek dioenez, txakur-kumea martxan jartzea zaila da, eta horretarako onena ahal den denbora gehienez libre edukitzea omen da, nerbio barik eta tenplauta egoten omen da. “Kartzelan dagoen pertsona, nerbio egoten dok; bada honek, berdin egoten dittuk: katean dagoen txakurra nerbio egoten dok, libre dagoena tenplauta”. Ardi-txakurrei buruz asko jakinda ere, Muxibarko artzaiak ez du



Joxe Bixente eta *Argi* bere txakurra, Degurixako jabe.

sekula lehiaketetan parte hartzeko asmorik izan; hala ere, ez ditu gaizki ikusten. “Aurreko baten irratian entzun

naixuan laster artzai baino ardi-txakur gehiago geratuko direla, eta neu ere hortan najak, baina lehiaketok etzazak txarto”.

Argi eta Joxe Bixenteren artean 160 ardi gobernatzen dituzte, eta horien esnea aprobetxatuz, aurtan 500 kilo gaztai egin ei ditu. Gazta kontuan, aditua, baita lehiaketetan ere. “Lehiaketetan urte askoan ibili izan nauk, beti gainera aurreneko sarietan. Nire ustez, lehiaketetan zenbat partaide izaten diren kontuan hartuta, sari gehiago jarri beharko litzakek eta ez hiru lehenengoentzat bakarrik, horren antzerakoak makina bat izaten dituk eta”.

Ardi-txakur edo gazta-lehiaketa egunetan izan ezik, inor gutxi oroitzen da eguraldi on edo txarrarekin aste eta jai mendian dabilzanez. Beharbada horregatik, Joxe Bixentek etorkizun beltza somatzen dio bere lanbideari. “Artzai izateko jaiotzean egin behar dok eta hemen, artzai gehienak mutil-zaharrak dituk, artzai izaten txikitatik ikasi behar dok”. Darwin-ek berak ere, ez luke hain garbi azalduko.

Joxe Bixenteren burutazioak

Txakur asko izan jittuat, batzuk onak eta beste batzuk txarrak, langile ikaragarriak eta baita nagiak ere, pertsonak letxe”

- Artilea moztea urtero egin behar den lan gogorra, gero inork ez erosteko: “Lehen Martinez izeneko batek erosten zidan; orain, hiru urtetakoak hemen dauzkat”.
- Lehen ardi-zaharrak behintzat buzkantzetarako erabiltzen ziren, orain ezertarako ere ez. “Duela 30 urte Olatxok asteen 20 ardi saltzen zituen, gaur, berriz...”.
- Arkumearen prezioa ez omen da aldatu azken hamar urteotan.
- Maioristek, Eroskik esaterako, kanpotik eta merkeago ekartzen ei dute; ondorioz, hemengoaren salneurriak behera egin behar.
- “Hemengo, kalitate hobea izanda, zela salduko dok bada kanpokoaren prezio berean? Hautsez hasten den bildotsa, urunetarako dok ona, ez beste ezertarako”.
- Gatzatua egiteko esnea eta ardi-gazta, ondo saltzen diren bakarrak.
- Subentzioek eusten omen diote zertxobait artzantzari.



Rugbyko taldeek hasiera borobila eman diote aurtengo denboraldiari.

Rugby taldeak gogoz hasi du denboraldian

Hiru talde aurten

Arrasate Rugby taldeko hiru ekipoetatik bik, joan den asteburuan eman zioten hasiera liga-txapelketari: seniorrak eta jubenilak; kadete mailakoak, berriz, oraindik ez du txapelketa hasteko fetxa jakinik ezagutzen.

Senior mailan, aurten 30 lagun daude, adina batz bestea, 20 urtetakoa. Jubenilak, berez 14 dira, baina azken urteko bost kadetek normalean jubenilekin jokatzen dutenez, partiduetarako jubenil taldea 19 lagunez osatuko litzateke.

Hasiera gogorra

Denboraldi ofiziala joan den astean hasi bazen ere,

rugby taldeek lehenago ekin zieten entrenamenduei. Beharbada, aurrendenboraldiko aipagarriena Sevillan jokatutako partidua izan daiteke, bidaia luze eta neketsuaren ondorioz galdu zena.

Egindako ahaleginak ez dira alperrik izan eta rugby taldeek hasiera bikaina izan zuten: seniorrek 17 eta 7 irabazi zion Zarautz taldeari eta jubenilek, berriz, 0 eta 24 Bera -Berari.

Ohizko arazoak

Rugby taldea ekonomikoki ez dabil ondo, baina arazo larriena, Atxabalpeko zelaia da. "Aurten, —zioen jokalarietariko batek— aurreko urteetan baino hobeto

dago zelaia. Udaleko langileek eta jokalariaiek lan handia egin dugu zelaia ahalik eta ondoen lagatzeko. Iaz hasierako partidua etxetik kanpo jokatu behar izan ditugu, aurten behintzat denboraldiari etxean jokatuz ekin diogu. Guretzat irtenbidea Mojategiko kirol-proiektua da, baina daraman martxa ikusita, proiektua errealitate bihurtu orduko zahartu egingo gara".

Jendea behar

Jokatzen ikasi nahi duenak, rugbykoak Musakolako kiroldegian izango ditu, kadeteak asteazkena eta ostiraletan eta beste bi taldeak gainontzeko egunetan.

LABURRAK

Larunbatean datoz Everestetik

Jose Ramon Zubizarreta eta Felix eta Alberto Iñurrategi, Everest-a igo zuten Leintz-tarrak, larunbatean iritsiko dira Euskal Herrira. Hiru mendizaleak ekarriko dituen abioia eguerdian iritsiko da. Bazkari-pasada egiteko gogoz etorriko dira; beraz, arratsaldez etorriko dira.

Liderra Atxabalpera

Santutxun irabazi eta gero, Mondrako jokalariek morala goitik izango dute eta igande honetarako beharrik ere badute. Izan ere, Irungo Real Union taldea etorriko da Atxabalpera, lidergoan eta jokatutako 5 partiduetatik 4 irabazi eta bat berdinduta. Mondra gorantz doa eta partidua hau irabaztea aurrerapausu handia izango litzateke. Klub-aren eguna izango da.

Eskubaloi ligaren hasiera

Aurrendenboraldia bukatuta, Arrasate Kirolak Eskubaloi Taldeko 4 ekipoek hasiera emango diete aurtengo liga desberdinei.

Senior mailako ekipoak abuztuan hasi zituen entrenamenduak eta aurrendenboraldi gogorra jokatu du. Taldea ia oso osorik eraberritu da, jende gazte berriarekin. Hala ere, jende gutxi dago taldean eta alderdi horretatik ekipoa motz gel daiteke. Kasu horretan, beharra dagoenean, juniorrek jokatu beharko dute.

ECUADOR
Bidaiak
 Kontzeziño, 2
 ARRASATE
 Tfnoa: 79 14 06

Begoña
 lurrindegia
 Drogeria
 Jostailuak
 Opariak
 Gipuzkoa Etorb. 33,
 Musakola Auzoa.
 Tfnoa: 79 03 73


UXARTE
 Kafetegia,
 gozotegia
 Gaez irekita!!
 JO TA KE!!
 Bañez doktorea, 12
 Tfnoa: 79 07 63 ARRASATE

"PAL"
 burdindegia,
 brikolage
 eta tresneria
 Uribarri etorbidea 3,
 Tfnoa: 79 31 99

PENALTIAK

● **SASKIBALOIKOAK FITXAKETA OKERRAK**
Saskibaloitza Taldeak, ez du zorrikerik fitxaketa berriekin: Andoni Iñarra bergararrak, ekarri eta eskatzen zuena ordaintzeko dirurik ez zegoenez alde egin zuen; Aitor Rementeriak dirudienez ez zuen maila onegirik eta etxerako bidea hartu zuen, eta Mikel Otxoa, luzerako lesionatu.

● **EGUTEGIA TALDE GUZTIEN ARTEAN**
ATBko kamaralariek, bi kirol-ikuskizun batera direnean bat aukeratu behar izaten dute. Telebistan ahalik eta gehien agertzeko, kirol-taldeen bildu eta partiduen egun eta orduak elkarrekin jarriko dituzte.



Halterofilian Estatuko Txapeldun berria Arrasatekoa

Joan den larunbatean Gandian burututako Estatuko Halterofilia Txapelketan, Angel Garcia arrasatearrak urrezko domina lortu zuen. Hamazortzi urtetako mutil honek 60 kilotako kategorian hartu zuen parte, lehen kolpean 92 kilo jaso zituen eta bi kolpetan, berriz, 110 kilo. Estatuko Txapelketa lortzeaz gain, egindako markarekin Angel Garciak Gipuzkoako errekor zaharra gainditu zuen.

◆ ◆ ◆
Zer sentitzen da Maritxu Kajoi bixamonean 5 eta 2 galdu eta gero?

Ba, irabazi dezakezula pentsatuzetik 5 eta 2 galtzera pasatzerakoan, tonto arpegia geratzen zaizu.



IRATXE VAZQUEZ
Emakumezko Mondra taldekoa

EMAITZAK

Eskubaloia

Lehen mailako seniorrak: Mondra - Bergara, Iturripen larunbatean, 18.00.
Jubenilak: Mondra - Hondarribia, Iturripen igandean, 12.00.
Kadeteak: Mondra - Hondarribia, Iturripen igandean 10.30.

Pilota

Gipuzkoako liga

Alebinak: Bergara 18 - Arrasate 7
Infantilak: Bergara 5 - Arrasate 18
Kadeteak: Bergara 5 - Arrasate 18
Jubenilak: Eskuz esku: Arrasate 18 - Bergara 4
Bikoteka: Arrasate 22 - Bergara 9
Nagusiak: Eskuz esku: Arrasate 12 - Bergara 18
Bikoteka: Arrasate 9 - Bergara 22
Paletaz: Arrasate 35 - Amasa 21
Pala motzez: Arrasate 40 - Amasa 39.
Hurrengo Partiduak
Txikiak: Aretxabaletan, igande goizean.

Nagusiak: Iturripen Antzuola eta Azkoitiaren aurka, larunbatean 11.30etan.
Palakoak: Musakolan, Aretxabaletaren aurka, 11.30etan.

Futbola

3. maila: Santutxu 2 - Mondra 4
Emakumezkoak: Zumai 5 - Mondra 2
Preferentea: San Andres 4 - Zaramaga 3
Ohorezko liga: Mondra 2 - UDA 0
Lehen mailako jubnilak: Bergara 0 - Mondra 3
Lehen mailako jubnilak: Gasteiz 1 - San Andres 4
Kadeteak: Mondra 3 - Aloña 0
2. mailako kadeteak: Mondra 2 - Iintxa 3
Hurrengo partiduak
3. maila: Mondra - Real Union, igandea 16.00etan.
Lehen mailako jubnilak: San Andres - Alaves, larunbata 12.00etan.
Lehen mailako jubnilak: San Andres - Michelin, astelehena 16.00etan.
2. mailako jubnilak: Mondra - Urki, igandea 11.45etan.

2. mailako kadeteak: Mondra - Urki, igandea 10.00etan.

Saskibaloia

Bigarren maila:
Gizonezkoak: Loiola Indautxu 109 - Arrasate 81
Emakumezkoak: Arrasate 54 - Ibiltari 49
Jubenilak: Arrasate A 103 - Aldapeta 106
Zarautz A 61 - Arrasate B 43
Gizonezko kadeteak: Arrasate A 60 - Ostadar 96
Zahor B 32 - Arrasate B 78
Emakumezko kadet.: Arrasate A 42 - Don Bosco 81
Hurrengo partiduak
2. mailagizon.: Arrasate - Gasteiz, larunb., 18.00etan.
Juniorrak: Arrasate - Goierrri A, Musakola, igandea, 12.00etan.
Jubenilak: Arrasate B - Iraurgi, Musakola, larunbata, 16.00etan.
Gizonezko kadeteak: Arrasate B - Miner Ardoak, Musakola, larunbata, 12.00etan.
Emakumezko kadeteak: Arrasate A - Orio, San Viator, larunbata, 12.00etan.

ARRASATE PRESS
HARPIDETZAK
77 05 65

MIREN
APAINDEGIA
Zarugalde, 23 -2. Ezk.
ARRASATE
Tfnoa: 79 96 90

Plus Ultra
taberna
Maalako Errabala, 17
ARRASATE
Tfnoa: 79 20 57

UGARTE
Industri hornidurak
Arrasate pasealekua
Tfnoa: 79 73 00 / 79 83 96
Telefax: 793412

Etxeko poteratzeak eta botulismoa

Azken urteotan eta arrazoi ezberdinengatik, jende askok egiten ditu etxean barazki, lekari edo arrainkien kontserbak. Lan horrek, arreta berezia eskatzen du: Aukeraturako produktuen pfreskotasuna, garbitasun handia eta poteratuko den, kontserbatuko den gaiaren azidotasun gradua ezagutzea. Azken puntu horrek—azidotasun maila edo pHak— garrantzi izugarria du kontserbatu eta kontsumitu nahi den produktuaren esterilizazioan. Etxean poteratutako edozein produktuk, azidotasun maila (pH)a 4,6 baino handiagoa badu, EZ da maribainuan (100° C) esterilizatuko, presioko lapikoan baizik, 115° C edo gehiagoko tenperatura izan dezan.

Botulismoa ezagutzen dela badira ia ehun urte. Belgikan urdaiazpiko batek 32 gaixo eta hiru hildako eragin zituenetik.

Organismo sortzaileari "Bacillus Botulinus" deitu zitzaion. Botulismoan intoxicazio mota bat da, C. Botulinum izeneko zepa batzuk eragindakoa, janaritako toxina jatearen ondorioz sortzen dena. Botulinum hori bazilo handi bat da, esporulatu, erresistentziako forma bereziak hartzen dituena, eta anaerobioa, oxigenorik gabe iraun dezakeena.

Elikaduraren gatik toxikazioetan larriena da botulismoa.

Organismo horiek zoruan, animalien liseriketa aparatuan, deskonposatzen dauden gorpuz hiletan edo siloraturako edo hondaturako belar, albitz edo aleetan dute euren jatorria, ura edo beste elikagaiak kutsatu ondoren. Hase-ra baten, mikroorganismo guztiak uretan daudela esan daiteke eta lurrazalaren lehorteak hautsaren sorrera dakarrela. Hauts hori haizeak



zabaldtu egiten du eta mikroorganismoak hedatu hainbat puntutara, lurrazaleko leku ezberdinetara, erreketara ... Horren ondorioz C. Botulinum-a landaketetan eta hainbat jakitan agertzen da.

Etxeko poteetan prestatutako jakiak dira arrisku-tsuena, azidotasun maila ertaineko barazkiak, lekak, erremolatxa, esparragoak etb.

Beroa, gatz arrunta kopuru handietan erabilita eta azidoari eustea erabiltzen dituzten ohizko metodoak eraginkorrak dira. Praktikan, esporoak berriz ere agertu egin


daitezke hainbat ordutako irakite-aldiaren ondoren, horregatik beharrezkoa da 100° Ctik gora berotzea. Hortik dator etxean kontserbak prestatzearen arriskua, eta gutxienez presioko lapikoetan berotzeko sistema erabili behar harko litzateke, tenperatura altuagoak hartzea beharrezkoa den aldetik. Esporoei 30' irauten dute 80° Ctan, 20' 100° Ctan eta 115° Ctan %95a desagertzen dira, baina gainerako %5a gaitasun kutsakor berarekin geratzen da. Botulismoaren toxinak sentiberak dira beroarekiko eta 80° Ctan 10 minutuz edukiz gero edo irakiten minutu gutxitan, suntsitu egin daitezke.

Komentario guzti honek etxeko poteentzat bakarrik balio du. Industrian prestatutako elikagaiek oso kasu bakanetan bakarrik sorrarazten dute toxikazio arriskua.

M. TERESA ALONSO

(Erredakzioan itzulia)

Urriatik aurrera...



KATAIDE
J A T E T X E A

Kataide poligonoa.
Tfnoa: 79 60 10
ARRASATE

*asteburuetan
kanpoan afaltzeko*

EZ DIRURIK JAN.

KATAIDE jatetxean

zeure neurriko afariak

dauzkagu.


Sabelerako eta poltsikorako.

1.300 PTA.



ALBOKA IKASTAROA

- Iraupena: azarotik maiatzera (larunbat goizetan)
- Matrikula: 2.000 PTA
- Izen emateak: Gazteentzako Informazio Bulegoan
- Plaza mugatuak!



BULARREKO PATOLOGI UNITATEA

Mamografia

Gune susmagarriak aurkitzea.

Gune susmagarrien ikuspegi zabalagoak.

Bularreko ekografiak.

Bularreko tumoreen zitologia.

Arrasaten bertan, kanpora joan beharrik gabe, egin ditzakezu bularreko gaitz guztien diagnostiko klinikoak, erradiologikoak, ekografikoak, termografikoak, zitologikoak, laborategikoak, etab.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA



DK.ak: CRISTOBAL, ESTOMBA, GOMEZ, MURGIENDO, OTALORA, RUIZ.

Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18

Dragoiarena

Denok entzun izan dugu inoiz "Mondragon" izenaren jatorria dragoi edo herensuge baten kondairan dagoela. Murugaineko magalean kobazulo sakon batetan bizi ei zen, eta herriko jendea erabat beldurtuta ei zeukan Ugaran bailaran ganaduak eta gizakiak jaten zituelako. Ekaitza eta trumoi hotsak zirenean ere dragoiaren haserterari leporatzen ei zitzaion.

Auzotarrak, ikaturik, bildu egin ziren arazoari irtenbideren bat bilatzeko. Egokiena dragoia hiltzea zela ikusten zuten, baina nor atrebitu? Azkenean, monstruoarekin paktua egitea erabaki zen, eta guztien lasaitasun eta pakearen truke urtero udako solstizioan neska gazte bat eman behar izaten zioten dragoiari. Puntual jeisten zen bere sariaren bila Santa Barbarara, eta urte hartan tokatutako neska bertan irensten zuen.

VII-VIII. mendetan ebanjelizazioarekin batera, San Jorgeren legenda iritsi zen herrira, Kristautasunaren lehen urteetan neskak bat dragoiaren hatzparretan salbatu zuela, alegia. Santuari erregutu, eta behin San Jorge atera zitzaion dragoiari Ugaranen eta bere argi handiaz izututa, ihes egin ei zuen denboraldi batez. Haren omenez eraiki zen Sanjurgi ermita. Baina berriz ere it-



zuli zen dragoia bere isatsaz Olandixotik beherako bidea markatuz. Eta horrela, tribututzat Loria, Majuaren andregaiia eman beharra suertatu zen urtera arte. Orduan, neska gazte ederraren irudia argizariaz egitea erabaki zuten tranpa gisa. Herensugea ez zen trikimailuaz jabetu eta irensten hasi zenean, burdina gogorrez eta galdaz ahoa eta sabelak erre eta bertan hil zuten. Geroz-

tik leku horri Mont Dragon izena jarri zitzaion eta beranduago Arrasateko herriak hartu zuen Mondragon izena.

On Jose Miel Barandiaranen iritiz, jaun feudalen baten historia jasoko du seguruenik. Herriak haren aginte tiranikoaren eta opresioaren menpe bizi izateaz gogoituta burutu zuen erroboltaren amaiera odoltsua jasotzen du legenda honek.

SUTONDOAN

ATALTXO (1)

B ehin batetan bizi ziren Biribiltxo eta Marime senar-emazteak beren seme bakan Ataltxorekin. Hau oso txikia zen soinez, txikien artean ere txikia inon txikirik bazen; baina haundia, benetako haundia, bere adimen argi, bihotz on eta berdin gabeko haundiagatik.

Goiz lainotsu eta hotz batetan, hots egin eta esan zion bere amak: "Seme, burukomin eta goralarriz ez nauk hain ondo-ondo ere aurkitzen eta badakik hire aita bidegin, kaminero denez, Malkarretapeko bide zabala konpontzen ari dela. Gure astoa indartsu bezain otsana duk eta bere asto-otzaretan aitarentzako gerturik daukadan baratxuri-zopa kazuelatxo eta heu jarriko zaituztet eta ausartuko ote hintzake harainoxe aitari gosaria eramaten?". "Ama, badakizuk zuk aginduta, on den guztia nik poz pozik egingo dudala".

Jarri zituen amak asto-otzaretan berakatz-zopa erratiltuxoa eta horren ondoan, epeletan joan zedin, bere semea eta esan zion amak:

—Seme, badakik Malkarretapera bidean Lapurzulo menditarte itzaltsu eta beldurgarritik igaro behar haizela eta menditarte hura ahalik bizkorren igarotzen ahalegindu hakit, lapur petral horiekin, ez nauk bat ere fiatzen eta.

—Ama, zoaz ohera eta egon zaitetz lasai bueltara artean, lapurrekin nola jokatu jakingo dut eta.

(Jarraituko du)

ARREGI TAR TIBURTZIO

**ARRASATE
PRESS
HARPIDETZAK**



77 05 65

**FELIPE
MADINA**

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

aitzgorri

LARRU eta LARRUKIAK

Salvatierrako larrukiak
60km.tako beherapenarekin.

Maalako Errabala, 7 Tfnoa: 76 06 36 ARRASATE



A daudenengatik ezkerretik hasita, lehenengo bien izenik ez dakigu, baina Eibar aldekoak edo izan behar zuten. Hirugarrena **Txomin Iturbe Abasolo** da. Bere ondoan **Jabier Iturbe Alvarez**, Aretxabaletan bizi den modragoetarra, **Jose Mari Jausoro** arrasatearra eta azkena ere eibartarra.

Mkurtuta, ezkerretik, **Iturbe** atxabaltarra, **Jose Mari Iturbe** modragoetarra, Jabierren anaia, eta hirugarrena lasartear bat.

Jose Mari Iturbek, argazkian jantzi ezberdinarekin ageri denak, Marinerian egin zuen soldadutza eta gainerako guztiak Marinako Infanterian. Bera baino bikinta gazteagoak ziren, eta kuarteletik irteten zuten lehen eguna zuten, kuartelaren aurrekaldera irten zien bila Jose Mari. Banderaren zinegitea Santiago de Compostelan egin ei zuten, eta Txomin Iturbe lehen lerroan joaten ei zen jefeguztiakin, "asko maite zuten" diosku Jose Mari Iturbek. Aurrera-

go, soldadu berrientzat kabo monitore izan ziren Txomin eta Jabier. Itsasoan ibiltzen zen bakarrak, Jose Mari Iturbek, ibilaldi luzeak egin zituela gogoratzen du, garai hartan mundua eza gutzen jardun zuela. Urtean, bi traje zuri eta bi urdin ematen zizkieten eta jatekoa berriz, ona. Eta kuarteletik irtendakoan denbora zertan emango? Txikiteoan egiten zuten hemen bezala, eta irtentaldi bakoitzean hango jaki tipikoa: tripakiak garbantzuekin.

sko eta asko izango dira soldadutzan ateratako erretratu zaharrak, eta aste honetan dakargun horietako bat da. El Ferroleko Marinan egon zen arrasatear talde batek ateratako da, eta beste euskaldun batzuen artean ikusten ditugu. Zutik



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta
Iarruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84

JOSTEKO

OIHALAK

Errekabarren, 20
ARETXABALETA
Tfnoa: 79 80 90

**Hilbera
kafetegia**

Uribarri Etorbidea
ARRASATE

**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

ZURE IRAGARKIAK DEBALDE HEMEN! Idatz ezazu Azoka kaleko, 1era edo dei egin 77 05 65 ☎

Etxebizitzak

- **Bost ikaslek etxebizitza behar dute Arrasate inguruan.** Tfnoa: 88 67 23.
- **Etxebizitza salgai San Andresen.** Foruen Plaza, 3.-5 ezk. Tfnoak: 79 47 28 eta (945) 44 51 99.
- **Bi irakasle pisu bila Arrasaten.** Dei egin egunez 79 04 11 edo gauez 88 66 23 tfnora. Arantzazu.
- **Ikasle batek logela behar du Arrasaten.** Dei egin 28 75 70 tfnora.
- **Etxebizitza salgai Zigarrolan.** Tfnoa: 79 79 94
- **Bi oheko logela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.

Lana

- **Neska prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 79 72 92.
- **Alemanezko klaseak ematen dira.** Dei egin edozein ordutan 79 78 75 tfnora.
- **Lanak makinaz pasatzen dira.** Tfnoa: 79 78 75
- **OHoko klase partikularrak ematen dira.** Tfnoa: 79 38 58.
- **Neska euskalduna behar da Gasteizen** etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko. Tfnoa: (945) 24 48 52.

- **OHoko klase partikularrak ematen dira** eta euskarako maila guztiak. Tfnoa: 77 04 98. Marije.
- **Edozein lan mota egingo nuke.** Dei egin arratsaldetan 79 50 30 tfnora. Jose Migel.
- **Neska prest umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko.** Dei egin 10etatik 3etara. Tfnoa: 76 05 63.
- **Esperientziadun sukaldari-laguntzailea** lan egiteko gertu. Tfnoa: 79 87 27.
- **Matematikazko klase partikularrak behar dira** larunbat arratsaldetan. Dei egin 79 93 52 tfnora gauetan eta galdetu Leiregatik.
- **Italianoko irakasle partikularra behar da.** Tfnoa: 79 21 72. Blanka.
- **Andrea prest umeak edo pertsona nagusiak zaintzeko** edo etxeko lanak egiteko. Tfnoa: 76 33 48.
- **Ingelesko klase partikularrak behar dira.** Tfnoa: 79 72 92.
- **Umeak zainduko nituzke.** Dei egin 79 60 16 tfnora.
- **OHoko klase partikularrak emango nituzke.** Tfnoa: 79 60 16.
- **Neska behar da etxeko lanak egin eta umeak zaintzeko.** Kotxea beharrezkoa da. Dei egin 8etatik aurrera 79 77 57 tfnora.
- **FP-2 mailako klase partikularrak behar ditut.** Tfnoa: 79 39 11.

Salerosketak

- **Derbi FDS-a egoera onean salgai.** Dei egin 79 96 76 tfnora edozein ordutan. Josu edo Javi.
- **Logela berri bat dut salgai.** Tfnoa: 79 10 51 (Goizetan edo gauetan).
- **Inpresora erosi nahi nuke nire ordenadorea-
rentzat.** Dei egin 77 12 28 tfnora. Jabi.
- **Bideo grabatzailea, kamara eta monitorea Beta sisteman** interesatzen bazaizkizu dei egin. Tfnoa: 77 12 28. Jabi.

Denetarik

- **Urrezko pultsera perla zuriduna galdu dut Arrasaten.** Dei egin gauez 77 09 43 tfnora.
- **Asteazken honetan (urriak 7) ETB-2ko "Mundo Abierto" ko** Guatemalari buruzko erreportaia grabatu bazenuen dei egin mesedez 79 45 80 tfnora, irudi horiek eskuratzen interesatuta nago eta. Jon Iñaki.

Harremanak

- **Bergarako UNEDeko Euskal Kultur Departamentuari,** eta bereziki Dani, Estepan, Joxe, Karmelo eta Juan Martini, mila esker. Benetan lan bikaina egiten ari zarete, segi horrela!

Aste Gazte

Bekak

- Unibertsitate mailako ikastetarako beka eskatzeko epea Urriaren 15ean amaitzen da.
- Maila ez-unibertsitarietako ikasleei, berriz, Urriaren 16an amaitzen zaie epea.

Lanbide hastapena

- 16-17 urte bitarteko gazteei zuzenduta, urtarri-lean hasiko dira 2 ikastaro berri: a) elektrizitatea, ha-

rozgintza, mekanika; b) sukaldaritza, artisaugintza, ofimatika. Izena emateko epea: Urriak 23.

Rock kontzertua

• Urriaren 16an Musakolako Kiroldegian 3 talde Berlingarren kontzertua izango da: "Chilli Confetti", "Die Testers" eta "Him!". AGAKO-k antolatuta.

Ibilaldia

- XX. Ordiziako helduen

ibilaldi neurtua, Urriaren 18an. Inskripzioak: 88 11 94 - 88 11 28 telefono zenbakietan.

Belaunaldi gaztea

• Argazki Lehiaketara aurkeztutako lan guztiak ikusgai izango dira Monterronen, Urriaren 9tik 18rarte.

Lehiaketa

• Deba Garaiko Eskualdeko Ikurra-Lehiaketa. Koloretan. Saria: 150.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: Urriak 13-23.

"Pertsona bat ondo zahartzen dela esaten denean, ez da adierazi nahi bere aurpegian denboraren aztarnak nabariak ez direnik, baizik eta ximur horiek, lehenago hain garbi ulertzen ez ziren keinuak aberastu egiten dituztela."

CARMEN MARTIN GAITE

**Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65**

ZER NAHIAGO?

Juanita Fundazuri Taxista



- Berezo gazteak ala nagusiak? Bietatik, niri berdin zait.
- Emakumezkoak ala gizonetzkoak? Emakumezkoak.
- Gauzez ala egunez lan egitea? Batzutan gauzez ere tokatzen zait, baina nahiago dut egunez lan egitea.
- Asko edatea ala asko erretzea da okerragoa? Asko edatea txarragoa izango dela uste dut.
- Gidatzea gustatzen? Bai, asko gustatzen zait.
- Kirolik egiten duzu? Ez, ez zait gustatzen.
- Urte asko daramazu lan honetan? 13 urte.
- Eta izan duzu esperientzia txarrik? Zorionez ez.
- Lagun gehienak emakumezkoak ala gizonetzkoak dituzu? Bietatik dut.
- Barre ala negar gehiago egiten duzu? Barre.
- Maita asko jartzen dizute? Ez.
- Asteazken zenbat aldiz garbitzen duzu kotxea? Bi aldiz.
- Diesel ala gasolinazko kotxea? Diesela. Holakoa dut.
- Dantzan badakizu? Bai.
- Baserriko bizitzaz zer uste duzu? Gaur egun gaizki dagoela.
- Heriotzak ematen dizu beldurrik? Beldurra ez, errespetoa bai.
- Sukaldari ona zara? Uste dut baietz.
- Zer gozaltzen duzu? Kafesnea edo kolakaoa, margarina eta mermeladarekin.
- Karta idaztekotan, nori? Nire ahizpa bati.
- Zertan zara on ona? Nire seme-alabentzako ama bezala.
- Eta zertan txar txarra? Letxe txarra dudanean txarrena naiz.
- Arrasatek bide onak dauka kotxez ibiltzeko? Bai.

BERTSOAK

Nafarroa Oinez

1
Nafarroa Oinez ez
mintzatzen hasita
uste dut ia denok
dugula irrika
Oartzungo arrakasta
aurrez ikusita
igandean Bieran
dugu denok zita

2
Nahiz ta denek ez duten
euskaldun erroa
hau da guzti-guztiekin
daukaten orroa:
ez ote da benetan
gauza arraroa
Euskal hizkuntza gabe
gure Nafarroa.

AGURTZANE INURRATEGI

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOIA

GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA

ZUBIZARRETA TAILERRAK

Gipuzkoa Etorbidea, 22
ARRASATE
Tfnoa: 79 15 65

URRATS

AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3
Tfnoa: 79 87 74
ARRASATE

ARRASATE PRESS

HARPIDETZAK



77 05 65

Karmele Perez

Goikobalun gustora kantatzen

Karmele, Goikobaluko partaidea da eta aurtengo etapa nola hasi duten ezagutu nahi izan dugu. Horrez gain, bere esperientzi pertsonala ere kontatu digu.

— Noiztik eta zergatik Goikobalun?

— Urtarrilean hiru urte beteko ditut Goikobalun. Eta zergatia azaltzea nahiko erraza da, gustatzen zaigunontzat erraza izaten da behintzat. Txikitatik gustatu izan zait abestea eta ikastolan ere abesbatzan kantatzen nuen. Gero Goikobalun sartzeko aukera izan nuen eta ordutik hortxe nabil, ikasi ere asko egiten da eta.

— Zenbat partaide zarete momentu honetan?

— Urtez urte aldaketa asko izaten dira. Urtero jende berria sartzen da eta beste batzuk ikasten hasten direlako edo lanarengatik, utzi egiten dute abesbatza. Guztira 85 partaide gara eta adin desberdinetakoak, 15 urtetik hasi eta aurrerako adin guztietakoak gaude. Berriak 10 dira eta oraindik taldean sartu gabe gaude, oraingo kontzertuetan beharbada ez dute parte hartuko.

— 85 partaide, ez da gehiegizko kopurua?



— Ez. Beharbada inguruko beste abesbatzekin konparatuz bai, baina ohitu egin gara eta izaten ditugun kontzertuetara denok joaten saiatzen gara. Ahots gehiago daudela berehala igartzen da eta nire ustez giro beteagoa lortzen da eta politagoa da.

— Nola hasi duzue etapa berri hau?

— Beno oraindik entsaiuak egiten besterik ez gara hasi. Gaur izango dugun lehen kontzertua, arratsaldeko 8.30etan Eskoriatzako San Pedron. Egia esan, pisu handiko beste kontzertu batzuk prestatzen ari gara eta hortan pasatzen dugu ia denbora gehiena.

— Kontzertu bakoitzean gauza desberdinak abesten dira, ezta?

— Bai, normalean zuzendariak kontzertu bat hasteko latinezko kantuak, beste hizkuntzetakoak aukeratzen ditu eta beharbada serioagoak direnak. Bigarren zatian berriz, mugimendu gehiago duten kantak, alaiagoak, asko euskaldunak eta oso ezagunak direnak.

— Abesteko musika tresna baten laguntza beharrezkoa da?

— Ez derrigorrez. Batzutan organua edo pianoaren laguntza izaten dugu baina gehienetan "a capela" kantatzen dugu, ahotsa bakarrik.

— Zuzendariak garrantzi handia du?

— Bai, berak aukeratzen ditu obrak eta azken batean berak zuzentzen ditu abesti bakoitzean. Gainera bera urduri samar jartzen bada, urduritasun hori gugana transmititzen da eta abesteko moduan ere eragin handia izaten du.

— Kantatzea gustatzen zaionari, zer esango zenioke?

— Animatzeko eta etortzeko gugana. Oso polita dela, asko ikasten dela eta lagun asko egiten dela taldean. Oso esperientzi polita dela, azken finean.

LABURRAK

◆ Filatelia erakusketa

Filatelia eta Numismatikaren inguruko XXI. erakusketa antolatzen ari dira Bergaran. Elkarteko partaideak animatu nahi dituzte duten materiala ekarri eta erakusketan jar dezaten. Norbaitek ziguluak edo txanponak euki eta erakutsi nahi baditu, urriaren 9a baino lehen, hau da, gaur bertan eraman beharko ditu Bergarako Kultur Elkartera.

◆ Goikobaluren kontzertua


Gaur arratsaldeko 8.30etan Eskoriatzako San Pedro elizan Goikobaluren kontzertua izango da. Bi zati izango ditu kontzertuak. Lehenean bederatzi kanta abestuko dira, Mendelson, Handel eta beste konposatzaile ezagunen lanak. Eta bigarrenean, kanta ezagunak eta herrikoiak abestuko dituzte, azken zati honetan euskal kantak ere entzun ahal izango dira.

◆ Pintura erakusketak eta literatur tailerra

Jose Ramon Elorzaren mar-goak ikusgai gaude Bergarako Kultur Etxean. Datorren 14an itxiko da erakusketa. Bestalde Mikel Arroiabe atxabartarrak, Naikari tabernan erakusten ditu bere kuadroak. Bertara hurbiltzen direnek, paisaiak eta bodegoiak jasotzen dituzten kuadroak ikusiko dituzte. Beraz, bi erakusketa interesgarri Bergaran. Bestalde literatur tailerra ere antolatu du Jardunelkarteak. Ondo idatzi edo edatzeko era hobetu nahi dute-entzako.

**UDALAITZ
TABERNA**

Erdiko kale, 3 ARRASATE
Tfnoa: 79 20 61



Arrasate Pasealekua 4,
Tfnoa: 79 14 90
ARRASATE

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

**ARRASATE
HOTELA**



Biteri, 1 Tfnoa: 79 14 16

TRUKOAK

EDOZEINEN ADINA
JAKITEKO

Lagun bati bere jaiotze datan, hilabeteari dagokion zenbakia idatz dezala eskatu, zenbaki hori bikoizteko esan eta gero bost gehitze-ko. Ateratakoa 50gatik bider dezala eta horri bere adina gehitu diezaiola eta ateratzen denari, 250 kentzeko. Zenbakiaren eskumako zifra bere adina azaltzen dute eta ezkerrekoak, berriz, jaiotze hilabetea.


Adibidea: laguna ekainean jaio zen eta 24 urte ditu.

Hilabetearen zenbakia 6
Bigatik bidertu 12
Bost gehitu 17
50gatik bidertu 850
Adina gehitu 874

250 kendu 624: hau da, 24 urte eta 6. hilabetean jaioa.

TXORIA ETA KAIOLA

Jarri txartel bat marraren gainean, sudurra txartel gainean eta begiratu kaiola eta txoria. Txoria kaiolan sartuko da.



Angel Galipienzoren omenez erakusketa Harresi Aretoan

Larunbat honetan arratsaldeko 7etan zabaldu eta azaroaren 8ra arte, Angel Galipienzo-ren lanak jasoko dituen erakusketa izango da ikusgai Harresi Aretoan.

Angel Galipienzo, Madrilen bizi bazen ere, izatez Naparra zen, Cascanten jaiotako mutila. Arrasaten burututako II. Arte Hamabostaldian parte hartu zuen pintore honek, Arte Ederretako ikasketei ekin zien, baina utzi egin zituen eta bere kontu margotzen hasi. Duela hilabete batzuk hil zen eta Arrasaten egin zituen lagunaren artean, bera oroitzuz, erakusketa hau antolatzea pentsatu zuten.

Angel Galipienzo pintore naparrak oleoa, akrilikoa eta pastela lantzen zituen gehienbat, kolore oso biziak erabili eta bere koadroetan batez ere giza figurak eta paisaiak isladatu. Erakusketa, Angelek berak egindako neurri handiko hamabi koadro eta karbontzilo egindako beste marrazki batzuk osatuko dute. Horretaz gain, pintoreari buruzko bideo bat ikusi ahal izango da, II. Arte Hamabostaldian jaso ziren elkarrizketa eta irudiez egin den bideoa.

II. Arte Hamabostaldiko Katalogoa

Erakusketaren inaugurazioa

zioa, II. Arte Hamabostaldiko katalogoaren aurkezpena egiteko aprobetxatuko da. Katalogoan II. Arte Hamabostaldian egin ziren lanak agertzen dira. Beharbada, katalogo honen berezitasunik garrantzitsuena, berau egiteko prozesuan egon daiteke,

Arte Hamabostaldian parte hartu zuen artista bakoitzak bere orriak diseinatu ditu eta. Era horretan katalogo ikusgarria gertatu da, estilo propio orri osatutakoa.



Araba Etor., 4
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 32



Olakua, 14
OÑATI
Tfnoa: 71 60 00

ALEMANA FRANTSESA INGELESA

Mila guztiak. Umeak, gazteak, helduak. Goizez eta arratsaldez.

ZATOZ GURE BULEGOETARA!

(Goizeko 9etatik 1etara eta arratsaldeko 4etatik 8etara)



IBABE
GARAJEA


MEKANIKA, TXAPA ETAPINTURA

Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

• ESAERA ZAHARRA •


*Hamarratzak
bistan
dabiltzanean,
euria seguru.*

• JEROGLIFIKOA •



**Nolako izan zen
Maritxu Kajoiko bixamona?**

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Ohiturak. 8. Zarugalde ta Aragoa kaleen artean. 9. Kasik. 10. Mintzaleku. 12. 2. pertsona sing. errespetuzko eran. 13. Desarra. 14. Berezi. 17. Nafarroako oihana. 18. Europako Komunitatea. 19. Nafarroako ibilgailuetan. 20. Txalupa.

Bertikalak 1. Haurtzain. 2. Usaimenaren izena. 3. Emakume izena. 4. Gustatu. 5. Lakrikun. 6. (Ald.) Eguneroko janaria. 7. Nasa. 11. Zoro. 15. Radioa. 16. Eguzki. 18. Ukatzeko hitza.

• HOROSKOPOA •

Aries Oraindik nobiorik aurkitu gabe? Urteak aurrera doaz.

Taurus Kontuz! Katuek zazpi biritza dituzte, baina zuk bat bakarra!

Gemini Ez begirada lurretik altxa. Baietz 1000 PTA aurkitu!

Cancer Gaur ere berandu? Erloju berria eros ezazu! ero gaitzizena jarriko dizute.

Leo Aprobetxatu! Urteko asterik zorionekoena izango duzu eta.

Virgo Ez ezazu dirua alferrik galdu, beharko duzu eta.

Libra Aldatu eraztuna beste hatzamarrera! Bestela...


Scorpio Bahitzaile ugari dabil. Kontuz gauean!

Sagitaris Kontuz txakur kakekin! Lurrera begira joatea komeni zaizu.

Capricorn Ez itzazu kopetak atzean eraman.

Aquarius Mutilen begiak zure izterretan finkatzen dira, a! eta neskenak ere bai.

Piscis Kontuz ibili "Tauro" arekin, ez da momentu egokiena beraiekin harremanak izateko.



ESTANPATUAK


Ipini zure marrazkiak, argazkiak, logotipoak, taldeak... zure kamiseta eta sudaderan momentuan bertan eta koloretan.

Arrasaten lehenengo aldiz eta ZARUGALDE KALEAN bertan, edozein irudi estanpatzeko aukera ematen dizu **REVOLUTION ROCK**-ek.

**Ezarri zure kamiseta
gehien
atsegin duzuna!**

Zarugalde, 28 Tfnoa: 79 48 37 ARRASATE

· JOSE LUIS ARMENDIAREN GOMENDIOA ·



Jose Luisi ikastaroe-tara hurbiltzen zaion jendea, Yoga ikastera, masajeak hartzera datorrena, lasaitzeko etortzen ei da. Eta horixe da hain zuzen Jose Luisen gomendioa, lasai bizi izatea: "Lan gutxiago hartu eta lasai egoteko denbora hartu behar da, oreka bilatu. Horretarako, norberari gustatzen zaiona egitea aski da: musika entzun, mendian zehar pasia da egin, erlajatu. Jate kontuan ere, zer jaten den bezain inportantea da nola jaten den, patxadaz jatea".

· PROGRAMAZIOA ·



- 10 Larunbata**
 - 4. Bai orixe! eta Follow me.
 - 6.30 Pareak jokuan.
 - 7. ATBketan.
- 11 Igandea**
 - 9.10 Mondragol.
- 12 Astelehena**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me.
 - 6.30 Dokumentala.
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 Mondra Sport.
 - 10 Asteko zinea: Egundoko itxaropenak.
- 13 Asteartea**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me
 - 6.30 Dokumentala
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 Larrugorritan: Gaztetxea.
 - 10 Asteko zinea: Egundoko itxaropenak.
- 14 Asteazkena**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 1.35 Bai horixe! Follow me
 - 6.30 Dokumentala
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 Tertulixan.
 - 10 Asteko zinea: Egundoko itxaropenak.
- 15 Osteguna**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.30 ATBketan.
 - 10 Asteko zinea: Egundoko itxaropenak.
- 16 Ostirala**
 - 1.30 Eguerdiko Berriak
 - 8.8.30, 9 Berriak.
 - 9.20 Monterrock.
 - 10 Asteko zinea: Egundoko itxaropenak.

· KOMIKIA ·



· SOLUZIOAK ·

Latza.
JEROGIFIKOA
 7. Kai. 11. Ero. 15. Ra. 16. Eki. 18. Ez.
 3. Ana. 4. Dastatu. 5. Irtiri. 6. Aigo.
Bertikalak 1. Umezain. 2. Sudutra.
 Na. 20. Untzi.
 Tiro. 14. Arraro. 17. Irati. 18. Ek. 19.
 nar. 9. Ia. 10. Edasteigi. 12. Zu. 13.
Horizontalak 1. Usadioak. 8. Mu-
GURUTZEGRAMA

Erdiko kale. 79 19 37



Ferrerias. 79 87 62

NAROKI

Urrezko bitxiak

NAROKI

Opariak, Jostailuak, Liburuak,

Paperdegia

Erdiko kale, 23 ARRASATE

Tfnoa: 79 20 47

IBARRA

Garajea S.A.



**EBRO
NISSAN**

Garajea
 Automobil-konponketa
 Garabi zerbitzua


**ARRASATE
PRESS**

HARPIDETZAK



77 05 65

RENAULT 21 MANAGER



Xehetasun aberasgarriak.

- ⊙ Direktzio-laguntza.
- ⊙ Ateen ixte bateratua urrutiko aginteaz.
- ⊙ Eragingailu elektrikoak aurreko leihoetan.
- ⊙ Atzeranzko ispiluak karrozeriaren kolorekoak.
- ⊙ Altueran erregulagarri den bolantea.

Gasolina 1.795.000 PTA* GTS.
Diesel 1.970.000 PTA* GTD.

* Penintsula eta Balearretarako stock-en dauden ibilgailuentzako hilabeterako eskaintza bakarrik. (BEZ eta garraioaz). Beste eskaintza batzuekin ez da bateragarria. Informazio gehiago nahi izanez gero dei 900 100 500.

Zatoz ikustera:



RENAULT

MECA, S.A.

Arrasateko kontzezionarioa.